



DURANGOKO AZOKAN

# Erein kazetaritza independentea



Itsaso Zubiria Etxeberria  
@itsasozubiria

Zita garrantzitsua bilakatu da azoka azken urteetan gure euskal mikro mundu honetan. Bezero bezala ia nahitaezkoa dirudi egunen batean Durangora gerturatzeak, eta zer esanik ez saltzaile papeira jokatu behar dutenak; bakoitza bere berrikuntza nagusienarekin, krisiak krisi azokak eta erostunen karterak beteta jarraituko duten esperantzaz. Saltzea baino zerbait gehiago ere badugu buruan, ordea. Durangoko azoka ARGIAkook – harpidedun, kolaboratzaile, kioskerok, langile...– elkartzeko gune aproposa dugu. ARGIAko standean ikusiko dugu elkar.

## Erein kazetaritza independentea

Jakoba Errekondoren *Bizi Baratzea* liburuz eta astekari eraberrituz osatuko da ARGIAren stand-a. Aurtengo uzta. *Erein kazetaritza independentea* leloak batuko ditu *Bizi Baratzea* eta ARGIA proiektua eta Ainara Azpiazu "Axi"ren marrazkiek emango die berezko izaera, bizia, guneari.



## Astekari berritua zer iruditu zaizu?

ARGIA proiektuaz hitz egiteko, iritziak jasotzeko eta astero-astero babesemaenez harpidetza mantentzen dutenei eskerrak emateko lekua izango da ARGIAren gunea.

Astekari eraberritua argitaratzeko emandako urte beteko prozesuan kazetaritza independentearen ideia jorratu da ARGIAren barren-barrenetik hasita. Astekari berritua eskuetan dugunez, bakoitzaren iritziak eta ekarpenak jasotzeko garaia da.

## Errekondoren kontsulta zabalik

Urteko produktu izarra izan da *Bizi Baratzea*, eta ikusita nolako harrera izan duten liburuen aurkezpenek, Jakoba Errekondo egunero egongo da ARGIAren postuan. Aukera ederra duzu etxeko landareez kontsulta egiteko. ■

*“Oraindik ZERUKO deitzen zen ARGIA astekarian idazten dut 1977az geroztik. Erran dezaket Hegoaldeaz dakidan guztia orrialde horietan ikasi nuela. Lotura ederra zen eta da mugaren bi aldeetako euskaradunontzat. Lehen hitzetik azkeneraino irakurtzen dut ARGIA, jada batzuetan, gaien aldetik bederen, INFERNUKOA dirudiena. Eskertzekoa, ekina...”*

**Itxaro Borda,**  
ARGIAko kolaboratzailea

- Eman ARGIA berrituz zure iritzia:
- Sare sozialetan #argiaeraberritua traola erabilita.
  - emailaz harpide@argia.eus-era idatzita.

## AGENDA DURANGOKO AZOKAN

### Bizi Baratzea liburuen aurkezpena

- Abenduaren 4an, ostirala: 19:30ean Durangoko Azokako Areto Nagusian..

### Landaberri irratsaioa

- Euskadi Irratiko Jakoba Errekondoren irratsaioa zuzenean Azokatik egingo da: abenduaren 5ean, larunbat goizean.

### Pintxoak egin eta jan

- Ortutik Ahora elkartearekin elkarlanean: abenduak 6 igandea, abenduak 7 astelehena eta abenduak 8 asteartea: 11:00etan, Plateruena Kafe Antzokian.

### 2016ko Ilargiaren Egutegiaren aurkezpena

- Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibarekin elkarlanean argitaratu dugun egutegia aurkeztuko dugu, Pello Zabala-rekin. Abenduak 8, asteartea, 16:30ean Durangoko Azokako Areto Nagusian.